

ESEP garatzeko prozedura

HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA

2014ko ilbeltza



🔗 Toki entitateetan ESEP garatzeko metodologia bat


ESEPen helburu nagusia euskararen erabilera da . Euskararen erabilera sendotu eta zabaltzea gizarte egiatan elebidun bateranzko urrats ezinbestekoa da. Euskararen funtzio soziolinguistikoetan eta hedapen sozialean aurrerapauso handiak eman diren arren, hainbat gizarte-esparrutan oso ahula da euskarak duen presentzia

Helburu nagusi horrez gain, ESEPk hiru helburu estrategiko ere baditu: euskara ondorengoetaratzea, euskara erabiltzea, eta euskara elikatzea.

Hizkuntza plangintza berria hiru helburu estrategikoren inguruan antolatuko da. Bat, ezinbestez, helburu nagusia baita, euskararen erabilera izango da. Erabilerarekin batera jabeak eta elikadurak osatzen dute helburuen atala

Plan nagusi haren oinarritzko osagai asko bere horretan mantendu daitezke, baina beste zenbait egungo premietara egokitu behar dira. Horrekin batera, euskararen sustapenean pisu handiagoa hartu duten alor berriei ere arreta eskaini behar zaie. Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren berrikuspena izan zen, hain zuzen ere, Euskara 21 izeneko gogoeta prozesuaren ondorioz adostu zen Itun berri baterantz (2009) izeneko txostenean jaso ziren egitekoetako bat, agian egiteko nagusia. Txostenean adierazi zen bezala, "ezinbestez adostu beharreko helburua da Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren (ESEP) berrikuspena, lanabes baliotsu hori XXI. mende hasierari begira findu eta egokitzeko". **Iratik** lanerako marko malgu bat eskainiko die erakundeei: abiapuntu bat, euskararen normalizazioari lotutako gaitan bide beretik joateko aukera emango diena. Ondoren, nola ez, bakoitzak tokian tokiko premietara egokitu ahal izango du.


ESEP definitzeko prozesua:



HPSren egitekoak udalarekin batean

1.- ANTOLAMENDUA - AURKEZPENA:

ANTOLAMENDUA /AURKEZPENA



⇒ Udalak eskaera egin.

Udalak HPSri eskaera formal bat egiten dio, ESPi hasiera eman nahi diola adieraziz edota besterik gabe, informazio orokorra eskatuz.

HPSrekin harremanetan jartzeko bidea web orria izan daiteke: bai prozesuari hasiera emateko eskaera egiteko edo informazio orokorra eskatzeko: esep@ej-gv.es

Web helbide honetan eskaera egiteko eredu bat dago eta korreo elektronikoz HPSra igorriko da.

⇒ Eskaerari erantzun.

ESEPi hasiera eman nahi bazaio udalerrian, erantzunean bilera politikorako hitzordua zehaztuko da HPSko zuzendariaren eta alkatearen artean.

1.- ANTOLAMENDUA - AURKEZPENA:

ANTOLAMENDUA /AURKEZPENA

Udalak HPSri
eskaera

**Bilera
politikoa**

**Bilera
teknikoa**

Aholku
Batzordea osatu

ESEPre hasiera
udalerrian
komunikatu

↳ Bilera politikoa.

Bilera politikoko parte hartzaileak:


- Udalaren izenean, garrantzitsua da alkatea, euskara arloko zinegotzia ogasun zinegotzia eta teknikariaren partaidetza.
- Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren izenean Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaria.

Bilera politikoan argitzekoak:

- ESEP eta Erabilera Planaren ezaugarriak.
- ESEP garatzeko prozedura aurkeztu.
- ESEP eta **Iratik** dakarren metodologia: esparruak, helburuak, adierazleak eta ekintzak.
- Planak arrakasta eta jarraipena izan dezan, beharrezkoak izango diren baliabideak eta antolaketa egiturak ezagutzera eman.
- Ardura teknikoa izango duen solaskidea izendatu.

1.- ANTOLAMENDUA - AURKEZPENA:

ANTOLAMENDUA /AURKEZPENA




↘ Bilera tekniko

Bilera politikoaren ondotik udaleko teknikaria eta HPSkoa jarriko dira harremanetan eta bilera tekniko finkatuko dute. Bertan gai hauek landuko dira:

- ESEP garatzeko prozedurari buruzko informazio zehatzagoa.
- Plan Estrategikoa eta Kudeaketa Plana nola definitu.
- **Irati** aplikazioaren erabilera erakutsi.
- Lan-urratsak zehaztu.
- Lan-urratsen egutegia finkatu.
- **Irati** aplikazioa dela-eta sor litezkeen zalantzak argitu.
- Aurrerantzean ere harremanetarako bideak zabalik utzi.

ANTOLAMENDUA /AURKEZPENA



🔗 Euskararen Aholku Batzordea osatu

Udalak ESEP definitzeko eta bere ezarpenerako Aholku Batzorde bat izenda dezake. Euskararen Aholku Batzordea. Batzorde honen egitekoak:

- Udalerriko Euskara Sustatzeko Ekintza Plana definitzeko iritziak, aholkuak ematea.
- Udalerriko Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren urteroko jarraipena.

Aholku Batzorde hori nola osatu udal bakoitzak erabakiko badu ere, HPSk zenbait gomendio luzatuko ditu. Adibidez, ondoko hauek har dezakete parte:

- ✓ Lehendakaria: Udaleko alkatea / Euskara zinegotzia
- ✓ Lehendakari-ordea: Udaleko Ogasuneko zinegotzia
- ✓ Idazkaria: Udaleko euskara teknikaria edo solaskide teknikoa
- ✓ Udal euskaltegirik balego, bertako arduraduna.
- ✓ Udalerrian hizkuntza normalkuntzan eragiten duten esparruetan esanguratsuak izan daitezkeen elkarten ordezkariak: guraso elkarteak; euskalduntze-alfabetatzen diharduten erakundeak; hezkuntza, kultura, aisialdi edo kirol elkarteak; merkataritza eta ostalaritza elkarteak; enpresen ordezkariak; komunikabideak...
- ✓ Era berean, egoki izan liteke hizkuntzaren normalizazioan sentsibilizazio berezia izan dezakeen herritarren bat, adituren bat gonbidatzea.

Eragile ezberdin asko dira eta parte hartzea eta ekarpenak sustatzeko, garrantzitsua izan liteke zenbait udalerritan horietako bakoitzarekin harremanetan jarri eta elkarriketa bidez Aholku Batzordearen helburuak adieraztea: banaka, zein taldeka aurkezpenak egitea... Eta era horretara, eragileen parte hartzea eta inplikazioa bilatzea.

Egokitzat joz gero, Azpi-batzordeak ere osa litezke esparruka: familia transmisioa, euskalduntzea-prestakuntza, irakaskuntza, aisia, etab. Horrek, jakina, kudeaketan lan handiagoa eragingo luke.

ANTOLAMENDUA /AURKEZPENA

Udalak HPSri
eskaera

**Bilera
politikoa**

**Bilera
teknikoa**

Aholku
Batzordea osatu

ESEPre
hasiera
udalerrian
komunikatu

↘ **Aholku Batzordea zenbatero bildu**

ESEPen Plan estrategikoari herriari egokitutako diseinua emateko, egokia litzateke definizio garaian Aholku Batzordeari aurkeztea Plan Estrategikoa eta haren iritzia entzun eta ekarpenak jaso ondoren plana osatzea. Eskeman adierazten den moduan, bi unetan aurreikusten da parte hartzea: diagnosia adosterakoan, eta plana adosterakoan.

ESEPen jarraipena eta arrakasta bermatzeko, egokia litzateke urtean behin gutxienez biltzea Aholku Batzordea: urteko kudeaketa plana baloratu eta hurrengo urterako hobekuntzak eta baliabideak proposatzeko.

ANTOLAMENDUA /AURKEZPENA

Udalak HPSri
eskaera

**Bilera
politikoa**

**Bilera
teknikoa**

Aholku
Batzordea osatu

ESEPren hasiera
udalerrian
komunikatu

⇒ ESEPren hasiera udalerrian komunikatu


Hautazkoa da. Halere, garrantzitsua izan liteke udalak Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren berri ematea herritarrei, herritarrek ikus dezaten hizkuntzaren normalizazioaren alde lanean ari dela udala. Ona da egiten dena erakustea eta txalotzea.

Komunikazioa udalaren tamainaren arabera oso ezberdina izan daiteke eta HPSk gomendio orokor batzuk luzatu baditzake ere, udala da bai mezua (plana definitzeko erabakia hartu duela, Aholku Batzordea sortuko duela, plana onartu duela, planeko ekintzarik onena...), nori, noiz, kanalak eta egiteko erak erabakiko dituen.

Horretarako euskarri bereziak sortu ordez, dauden euskarriez baliatu daiteke: udalaren web orria, euskara txokoa, udal aldizkaria, inguruan plazaratzen den egunkari edo aldizkaria...

2.- DIAGNOSIA:

DIAGNOSIA



📄 Datu bilketa

Datu bilketa **Irati** aplikazioan bertan egin daiteke. Bi atal bereizten dira:

1.- Datu kuantitatiboak (adierazleak)

Adierazle horietako zenbait udalerrinari buruzko datu **orokorrak** izango dira: Euskara zerbitzuari buruzkoak, biztanleriari buruzkoak, enplegua... Datu batzuk udalak berak izango ditu eta beste batzuk iturri ofizialetatik bildu litezke. Beste datu asko, ordea, ESEPen **esparruen** gainekoak izango dira: erabilera familiar, D eredueta matrikulazioa irakaskuntzan... Atal hau betetzerakoan, berebiziko garrantzia du kontuan izatea etorkizunera begira zein arlo eta helburu landu nahi diren. Horrela bada, esparru eta helburu gutxi batzuk landu nahi diren guneetan, horiei dagozkien datuak betetzea nahikoa izango da.

2.- Balorazio kualitatiboa

Egokia da datu kuantitatiboak (adierazleak) balorazio kualitatiboaz osatzea. Hala bada, Iratik aukera emango du datu horiek, esparruz esparru, baloratzeko (*Ahuleziak* eta *Indarguneak*). Gainera, balorazio kualitatibo hori betetzeko esparru bakoitzean zenbait galdera eskaintzen dira, ahulezia eta indarguneak azaleratzen laguntzeko asmoz.

Orain arteko informazio guztia kontuan izanda, **diagnosi zirriborro bat** osatuko da. Txosten sintetiko bat: datu bilketan jasotako informazio nagusiaz osatutakoa, kuantitatiboa zein kualitatiboa.

Zirriborroa Udaleko euskara zerbitzuak egingo du, ondoren, nahi izanez gero, herriko eragileei erakutsiko zaie iritziak jaso eta ekarpenak egin ditzaten. Herriko eragileen partaidetza, lan talde txiki ezberdinen arabera antolatu daiteke. Urrats hori, noski, borondatezkoa izango da: udal bakoitzak erabakiko du partaidetza zenbateraino zabaldu.

Eragileen partaidetzarekin edota partaidetza gabe, azken emaitza, diagnosi zirriborroa izango da: Datu kuantitatiboaz gain, *Ahulezia* eta *Indargunez* osatutakoa.

DIAGNOSIA

Udalerrian euskarak duen egoerari buruzko datu bilketa.



Egoeraren balorazio kualitatiboa



Diagnosi zirriborria



Aholku Batzordearekin kontrastatu




Behin betiko diagnosis

↘ Aholku Batzordearekin kontrastatu

Osatutako zirriborria Aholku Batzordean aurkeztuko da. Aholku Batzordearen iritziak eta ekarpenak jaso ondoren, **behin betiko diagnosi txostena** osatuko da.

3.- PLANA:



↘ ESEPen plan estrategikoa: esparruak eta helburuak

Udalerriko diagnosa osatu ondoren, Euskara Zerbitzua, Irati aplikazioaren laguntzaz, **plan estrategikoa** diseinatzen hasiko da.

Lehen urratsa: Plan Estrategikoaren epea aukeratzea: ohikoena 4 urterako izatea da, baina egokia litzateke Erabilera Planeko plangintzaldietara egokitzea eta 5 urterako egitea.

Bigarren urratsa: Epe horretan garatuko diren esparruak eta helburuak (adierazleak barne) aukeratzea.

Diagnosi fasean bezala, hemen ere, aukerakoa izango da herriko eragileen partaidetza bultzatzea. Aholku Batzordeko lan taldeak izan daitezke, udalarekin elkarlanean, plan Estrategikoa osatuko duten helburuak aukeratzen parte har dezaketenak. Hala ere, urrats hau borondatezkoa izango da.

↘ Aholku Batzordearekin kontrastatu


Behin Plan Estrategikoaren zirriborria dagoenean, Aholku Batzordeari aurkeztuko zaio, ekarpenak egin ditzan.

↘ Udalbatzak onartu

Aldaketa guztiak sartutakoan, Plan Estrategikoa definitutzat jo daiteke eta Udalbatzari aurkeztu, egoki irizten dion aldaketak jaso ostean, onartu dezan.

Une horretan, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari jakinaraziko zaio ESEP onartu dela; eta, **Irati** aplikazioa erabiliz gero, onarpen data jaso ahal izango da.

3.- PLANA:



⇒ **Kudeaketa Plana: lehen urteko esparruak eta helburuak**

Hemendik aurrera egiten den lana, udalaren barne lana izango da. Behin plan estrategikoa zehaztuta, lehen urtean zeri ekingo zaion erabakiko da. Hori, udalaren baliabideen eta lehentasunen arabera egingo da.

Irati erabiltzekotan, bertan aukeratu daitezke urte horretako esparruak, helburuak eta baita horiek lantzeko ekintzak ere.


⇒ **Udalbatzak onartu**

Lan horiek gauzatu ondoren, urteko kudeaketa plana prest egongo da Udalbatzak onartzeko.

⇒ **Ekintzak deskribatu fitxetan**

Gainera, behin ekintzak adostu direnean, ekintza horiek deskribatzeko fitxak beteko dira. Horretan ere **Iratik** lagun dezake; izan ere, aukera emango du ekintza bakoitza hiru unetan, behintzat, begiratzeko: aurreikuspenean (deskribapena, arduraduna, hartzaileak, aurrekontua...), jarraipena egitean (artxiboak erantsi...) eta baloratzekoan.

4. JARRAIPENA:



↳ Planaren jarraipena: urteko kudeaketa planaren balorazioa

Urte amaieran, kudeaketa planaren balorazioa egitea komeni da. Horrela jarriko baitira agerian zeintzuk ekintza izan diren arrakastatsu eta zeintzuk ez, eta horien arabera helburuetan zenbat egin den aurrera.

Balorazioa egiteko, hurrengo pausuak jarraitzea proposatzen da:

- Jarduera bakoitzaren balorazioa bere fitxa betez (kostu erreala, orduak, partaidetza...). Pauso hau, arian-arian egin daiteke jarduera bakoitza amaitzean. Ez bada horrela egin, komeniko litzakete urte amaieran urte horretan zehar egindako jardueren fitxak osatzea.
- Behin jarduera guztiak baloratzen direnean, helburuei lotutako adierazleen balioak beteko dira, eta aztertuko da ea aurreikusitako mailara iritsi den edo ez.

Horretaz gain, balorazio kualitatiboa egin ahal izango da, eta horretan zeresan handia izan lezakete Aholku Batzordearen ekarpenek. Helburua urteko plana baloratzea da, eta, horretan oinarrituta, hurrengo urtean joratu nahi diren esparruak, neurriak eta ekintzak aurreikustea. Kudeaketa planaren balorazioa, informe moduan eskainiko du **Irati** aplikazioak.

Kudeaketa planaren balorazioa, input oso garrantzitsua izango da hurrengo urteko kudeaketa plana egiteko eta bertako esparruak aukeratzeko.

LABURBILDUZ:

